

## IDAZKARITZA NAGUSIA

### Foru Gobernu Kontseiluak 2020ko urriaren 27ko ohiko bilkuran onartutako ebazpen laburpena

#### – Erabakiak:

#### DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 498/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onespena ematea 2019-2023 XI. Legealdiko Foru Kargu Publikoen Katalogoa onesten duen Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 3ko 762/2019 Erabakia aldatzeari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 499/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onespena ematea Arabako Foru Aldundiak hainbat erakundetan duen ordezkaritza berritzeari.

#### ENPLEGU, MERKATARITZA ETATURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 500/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onestea uztailaren 28ko Kontseiluaren 352/2020 Erabakiaren bidez kontratazioak egiteko epearen luzapena, Arabako enpresetan kontratazioa sustatzeko laguntzen 2020ko ekitaldirako deialdiaren barruan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 501/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onestea babesletza hitzarmena sinatzea ARGIA 3 ASOC CULTURAL erakundearekin, Araban Argiztapen Jaialdia (UMBRA Light Festival) garatzeko 2021ean.

#### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 502/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onestea, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak eskatuta, 9/2020 konpromiso kreditua sortzeko espedientea, "Informatizazioa Saila AKSA" gastuen egoeraren partidan, aurrekontu esleipena egokitzeko "Errepideetako eraginen, gorabeheren eta istripuen kudeaketa" proiektuaren burutzapen erritmoari.

Foru Gobernu Kontseiluaren 503/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onestea gastuen egoerako "A plana. Kontratazioa sustatzea" partidan 10/2020 konpromiso kreditua sortzeko espedientea, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 504/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onespena ematea, Nekazaritza Sailak hala eskatuta, 28/2020 konpromiso kreditua (13.333,33 eurokoa) 2021eko urteko 2022ko urtekora birbanatzeko espedienteari, gastuen egoeraren "Nekazari gazteen enpresak sortzea. Lehenago hitzartutako kreditua (2016)" partidan.

Foru Gobernu Kontseiluaren 505/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onestea 29/2020 konpromiso kreditua 2020ko urteko 2021eko urtekora birbanatzeko espedientea, 245.092,00 euroko zenbatekoaz, gastuen egoeraren "Zergak kudeatzeko programa informatikoa AKSA" eta "Berrikuntzak informatika fiskalean. AKSA" partidetan, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 506/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onespena ematea 11/2020 kreditu gaitzeko espedienteari, 25.000,00 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Hitzarmena INDESArekin Parke mugikorra" izeneko partida sortu berria, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 507/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onestea 102/2020 kreditu transferentziaren espediente, 19.147,00 eurokoa, "Programa informatikoak" izeneko partida funtsez hornitzeko, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 508/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onestea 105/2020 kreditu transferentziaren espediente, 5.145,68 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Despopulatze estrategia - autonomoak" izeneko partida sortu berria, Lurralde Oreekaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 509/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onestea 107/2020 kreditu transferentziaren espediente, 120.439,92 euroko zenbatekoaz, funtsez hornitzeko "Errepideak. Lehenago hitzartutako kreditua" partida, Lurralde Oreekaren Sailak eta Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak hala eskatuta.

Foru Gobernu Kontseiluaren 510/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onestea aurrekontua aldatzeko zenbait espediente, "Obra proiektuak idaztea. Lehenago hitzartutako kreditua" partidaren dotazioa egokitzeko "A-2622 Tejera mendateari eta Gesaltza Añanako saihebideari buruzko azterlan informatiboa" idazteko lanei, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Sailak hala eskatuta.

#### LURRALDE OREKAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 511/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onestea abenduaren 27ko 850/2019 Erabakiaren bidez profesional autonomoei emandako dirulaguntzak ordaintzeko egiaztagiriak aurkeztu izana.

#### NEKAZARITZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 512/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onespena ematea enpresa plana aldatzeari, bai eta hura amaitzeko epea luzatzeari ere, irailaren 12ko Kontseiluaren 510/2017 Erabakiaren bidez nekazari gazteek enpresak sortzeko emandako laguntzaren onuradunak hala eskatuta.

#### INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 513/2020 Erabakia, urriaren 27koa. Onestea Elder Medioambiente SLLri eslei dakiola Arabako Lurralde Historikoan puntu berde mugikorraren zerbitzuaren prestazioa, urteko de 178.095,50 euroko zenbatekoarekin (urteko oinarria), BEZa barne, eta gauzatzeko 3 urteko epearekin.